

ARALAR TALDEKO LEGEBILTZARKIDE DANIEL MAEZTU PEREZ JAUNAK, INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILBURUARI ARABAKO GAS USTIAPENAREN INGURUAN EUSKO JAURLARITZAK EGITEN DITUEN AURREIKUSPEN EKONOMIKOEI BURUZ IDAZKI BIDEZ ERANTZUTEKO EGINDAKO GALDERAREN ERANTZUNA. (09/10/05/03/5250)

Shesa edo EVE enpresek zenbat denbora daramate prospekzioak edo zundaketak egiten Arabako zonalde horretan? Noiz hasi ziren zundaketak egiten eta zenbat egin dituzte?

Orain arte, Euskadiko Hidrokarburoen Sozietateak eta EEEK (EVE) ez dute inongo prospekzio edo zundaketarik egin haustura hidraulikoaren edo fracking-aren sistema erabiliz.

Euskadiko Hidrokarburoen Sozietatea izan zen gas konbentzionala ote zegoen ebaluatzeko 1997an zulatutako Armentia 1 zundaketaren konpainia operadorea; aurretik, bazkide gisa parte hartu zuen San Antonio 1 zundaketaren zulaketan.

Zeintzuk izan dira prospekzio edo zundaketa horien emaitzak?

Haustura hidraulikoz zundaketarik egin ez denez, ez dago teknika horri loturiko emaitzarik. Aipatutako gas konbentzionalaren zundaketen emaitzak aurretik beste operadore batzuek egindako zundaketetan lortutakoen antzekoak dira.

Nola egin du Gobernuak aterako den diruaren kalkulua?

Eusko Jaurlaritzak, EEEK eta Euskadiko Hidrokarburoen Sozietateak ez dute gas ez-konbentzionalaren ustiapenari buruzko aurreikuspen ekonomiko-finantzariarik egin.

Hainbat aldiz errepikatu den moduan, euskal administrazioaren parte-hartzea gas ez-konbentzionalaren esplorazioaren eremura mugatuta dago, hain zuzen ere gas-ustiapenaren bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta ingurumenari dagokiona zehazteko.

Alabaina, gas ez-konbentzionalaren balizko erreserbak 185 bcm ingurukoak izan daitezkeeneko aurreikuspenarekin ari gara lanean. Gaur egun gure lurraldera inportatzen den gasaren eta aipatutako balizko erreserben kantitateen balioak ezagutzen ditugunez, esan dezakegu 30.000 milioi euro inguru izan daitekeela euskal ekonomiari gas ez-konbentzionalaren ustiapenak ekar dakioken jardun ekonomikoa.

Aurretik haustura hidraulikoaren metodoaren bitartez prospekzio edo zundaketak egin badira, zergatik egin dira publiko eta hain garrantzia handiarekin orain egingo diren zundaketak?

Adierazi denez, orain arte eskualde horretan ez da gas ez-konbentzionalerako zundaketa edo prospekziarik egin haustura hidrauliko bidezko estimulazio-teknikak erabiliz. Pasa den 2011ko urriaren iritzi publikoaren aurrean jakinarazi zen zundaketak egiteko asmoa, gardentasun-ariketa bat eginez, aurtengo aurrekontu-proiektuan sartu aurretik.

Zein izango da orain egingo diren prospekzio lanen kostua?

Aurrekontuan zehaztuta dagoen moduan, hasieran aurreikusitako bi zundaketen kostua 50 milioi euro inguru izango da. Merkatu aldakorrean ez dugu jakingo zein den zenbateko erreala dagokion kontratazio-prozesuak gauzatu arte.

Ustiaketa guztiak izango duen kostua kalkulatu da? Hala bada, ze kostu izango du ustiaketa guztiak?

Gorago adierazi denez, ez da gas ez-konbentzionalaren balizko ustiapenari buruzko inongo azterketarik egin hori ahalbidetzen duen daturik ez daukagulako. Planteatutako esplorazio-lanak egitearen helburua hain zuzen ere gas ez-konbentzionalaren balizko ustiapenaren bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta ingurumenari dagokiona zehaztea da.

Ze enpresak egingo ditu prospekzio lanak?

EEEk bi enpresa pribaturekin Euskadiko Hidrokarburoen Sozietatearen bitartez dituen akordioetan jasotakoaren arabera, Euskadiko Hidrokarburoen Sozietatea da esplorazio-lanen ardura duen enpresa operadorea.

Eusko Jaurlaritzak edo bere baitako enpresaren batek harreman kontraktualik du edo hitzarmenik dauka prospekzio lanak egingo duen enpresa edo enpresekin?

Aurreko idatz-zatian eman zaio erantzuna. SHESA EVE Taldeko sozietatea da.

Nork jarriko du prospekzioak egiteko makineria? Badago arlo horretan harreman kontraktualik makineria jarriko duenarekin? (Hala bada, hitzarmen edo harreman kontraktual hori egiaztatzen duen dokumentuaren kopia helaraztea eskatzen da).

Behar diren makineria, produktuak eta abar entrega-data luzeko materialak hornitzeko hasi diren kontratazio-prozeduren bitartez kontratatutako zerbitzu-konpainia espezializatuek banatuko dituzte.

Prospekzioak zenbat denbora iraungo duen kalkulatu du Jaurlaritzak? Hala bada ze epe izango da?

Kalkulatu da zulaketa-lanek, horiei dagozkien ekipoen muntatze- eta desmuntatze-lanek eta ondorengo hausturak eta dagozkien muntatze- eta desmuntatze-lanek guztira urtebeteko iraupena izan dezaketela.

Horren ondoren, beste urtebete bat iraungo duen produkzio-test bat egin nahi da. Ateratako gasaren izaera lehorra dela-eta, test hori egikaritzeak egokitze-ekipo txiki baten parte-hartzea eskatuko du.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko otsailaren 14a

Bernabé Unda Barturen
INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILBURUA

RESPUESTA A LA PREGUNTA PARA SU RESPUESTA POR ESCRITO FORMULADA POR D. DANIEL MAEZTU PEREZ, PARLAMENTARIO DEL GRUPO ARALAR, AL CONSEJERO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO, RELATIVA A LAS PREVISIONES ECONÓMICAS QUE REALIZA EL GOBIERNO VASCO EN RELACIÓN CON LA EXPLOTACIÓN DEL GAS EN ÁLAVA. (09/10/05/03/5250)

¿Cuánto tiempo llevan las empresas Shesa o EVE realizando prospecciones o sondeos en dicha zona de Álava?. ¿Cuándo empezaron a realizar sondeos y cuántos se han realizado?.

Ni Shesa ni el EVE han realizado, hasta el momento, ninguna prospección o sondeo utilizando el sistema de fractura hidráulica o fracking.

Shesa fue la compañía operadora del sondeo Armentia 1 perforado en 1997, para la evaluación de existencia de gas convencional, participando anteriormente, como socio, en la reentrada del sondeo San Antonio 1.

¿Cuáles han sido los resultados de dichas prospecciones o sondeos?.

Al no realizarse sondeos de fractura hidráulica no hay resultados relacionados con tal técnica. Los sondeos mencionados de gas convencional dieron resultados semejantes a los obtenidos en otros sondeos previos realizados por otros operadores.

¿Cómo ha realizado el Gobierno el cálculo del dinero que se va a obtener?.

El Gobierno Vasco, el EVE y Shesa no han realizado ningún escenario económico-financiero sobre la explotación de gas no convencional en la C.A.P.V.

Como se ha reiterado en sucesivas ocasiones la participación de la administración vasca está limitada al campo de la exploración de gas no convencional, al objeto de determinar la viabilidad técnica, económica y medio ambiental de su explotación.

Sin embargo, se trabaja con el escenario de que las posibles reservas del gas no convencional alcancen los 185 bcm. Conocidos los valores actuales de importación del gas a nuestro territorio y las posibles reservas mencionadas, es por lo que se ha indicado en torno a 30.000 millones de euros el rango de la actividad económica que una posible explotación del gas no convencional pudiera suponer para la economía vasca.

Si se han realizado anteriormente prospecciones o sondeos utilizando el método de la fractura hidráulica, ¿por qué se han hecho públicos, y de forma notoria, los sondeos que se van a realizar ahora?

Como se ha indicado, no se han realizado anteriormente, en la zona, sondeos o prospecciones de gas no convencional aplicando técnicas de estimulación mediante fracturación hidráulica. El pasado mes de octubre se dio a conocer ante la opinión pública la intención de realizar sondeos en un ejercicio de transparencia, con carácter previo a su incorporación al proyecto de presupuestos del presente año.

¿Cuál va a ser el coste de las labores de prospección que se van a realizar ahora?

Como está consignado presupuestariamente, el coste de los dos sondeos inicialmente previstos está estimado en 50 millones de euros. En un mercado fluctuante no se conocerán las cifras reales hasta que se realicen los procesos correspondientes de contratación.

¿Se ha calculado el coste total de la explotación? Si es así ¿Cual será el coste total de la explotación?

Como se ha indicado anteriormente, no se ha realizado ningún estudio económico de una posible explotación del gas no convencional por no tener en estos momentos datos que lo permitan. El objetivo de realizar los trabajos de exploración planteados es, precisamente, determinar la viabilidad técnica, económica y medioambiental de una posible explotación del gas no convencional.

¿Qué empresa va a realizar las labores de prospección?

Dentro de los acuerdos que el EVE a través de Shesa tiene con dos empresas privadas, la empresa operadora de los trabajos de exploración es Shesa.

¿El Gobierno Vasco o alguna de sus empresas, tiene alguna relación contractual o acuerdo con la empresa o empresas que van a realizar las labores de prospección?

Respondida en el apartado anterior. SHESA es una sociedad perteneciente al Grupo EVE.

***¿Quién va a aportar la maquinaria para realizar las prospecciones?
¿Existe algún tipo de relación contractual con quien va a aportar la maquinaria?. (Si es así, solicitamos que se nos haga llegar una copia del documento que certifica dicho acuerdo o relación contractual).***

La maquinaria, productos, etc, que sean necesarios serán suministrados por compañías de servicios especializadas que serán contratadas a través de procedimientos de contratación que se han iniciado para suministros de materiales de largo plazo de entrega.

¿Ha calculado el Gobierno cual será la duración de la prospección?. Si es así, ¿Cuál será la duración?

Se calcula que los trabajos sucesivos de perforación, con el montaje y desmontaje de sus equipos así como de fracturación posterior con su correspondiente montaje y desmontaje de los equipos tengan una duración conjunta de un año.

Posteriormente se pretende realizar un test de producción de otro año de duración. La ejecución de este test exigirá el concurso de un equipo de acondicionamiento de escasa entidad dado el carácter seco del gas extraído.

Vitoria-Gasteiz, 14 de febrero de 2012

Bernabé Unda Barturen
CONSEJERO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO